

OSAKIDETZA COMARCA BILBAO BILBO ESKUALDEA -.Bi**E.-**



Julia Echevarria Portellek Bilbo Eskualdeko 2010eko Argazki-Lehiaketarako egindako argazkia

INGURUMEN-ADIERAZPENA

2010eko Urtarrila-Abendua

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA

- 1.1 Sarrera
- 1.2 EMAS erregistroa eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) irispena
- 1.3 Zuzendaritzaren aurkezpena
- 1.4 Comarca Bilbao- Bilbo Eskualdea: BiE
 - 1.4.1 Erakundearen egitura
- 1.5 Emandako zerbitzuaren deskribapena

2 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

- 2.1 Ingurumenerako Politika
- 2.2 Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren aurkezpena
- 2.3 Erantzukizunak Ingurumena Kudeatzeko Sistemari

3 BIE – BILBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

- 3.1 Ingurumen alderdiak
- 3.2 Ingurumen-alderdien identifikazioa
- 3.3 Ebaluazio-irizpideak
- 3.4 Ingurumen-alderdi esanguratsuak

4 XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMEN KUDEAKETAKO PROGRAMA

5 INGURUMEN-JOKABIDEA

- 5.1 Oinarrizko adierazleak eta beste adierazle batzuk
- 5.2 Arau-xedapenen arabera ingurumen-jokabideak
 - 5.2.1 Ingurumenaren eremuan aplikagarri diren legezko baldintzak
 - 5.2.2 Legezko baldintzak eta ingurumen izaerako beste baldintza batzuk betetzea

6 INGURUMENARI LOTUTAKO INTERESEKO BESTELAKO INFORMAZIOA

- 6.1 Ingurumenarekiko jokabidea erakundearen beste eremu batzuetan
- 6.2 Herritarrei zuzendutako komunikazioa eta informazioa
- 6.3 Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea
- 6.4 Ingurumen-kudeaketarako inbertsioak
- 6.5 Ingurumenari lotutako gertaerak
- 6.6 2011rako Erronkak

7 DATUAK ZENTROKA (ERANSKINA)

8 EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

AURKEZPENA

1.1 SARRERA

Adierazpen honen xedea da Bilboko herritarrei eta interesa daukatenei Bilbo Eskualdeko (BiE) ingurumen-alderdiei buruzko informazioa ematea, erakundearen jardueraren ondoriozko eraginei buruzkoa nahiz ingurumen-eraginak gutxitzeko eta kutsadura prebenitzeko egiten den ingurumen-kudeaketari buruzkoa ere.

2006aren hasieran, BiEk Lehen Mailako Arretako unitate batzuetan **Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)** bultzatzea erabaki zuen, era iraunkorrean garatzea sustatzeko. 7 LMAUK ekin zioten Ekoscan araua ezartzeari eta, ondoren, zuzendaritzak komenigarri jo zuen **Eskualde osoan** kudeaketa-sistema bat ezartzea, **UNE-EN ISO14001:2004** arauaren arabera, Eskualdeko Zuzendaritzako eta bere LMAU guztietako ingurumen-kudeaketan etengabeko hobekuntza bermatzeko.

Eskualdeko Ingurumen-Kudeaketan aurrerapusoak zelako eta herritarrekiko komunikazioari eta beraiei partehartzeari garrantzi handiagoa emateagatik, behin Kudeaketa-Sistema ezarri eta finkatu ondoren, **Europako 761/2001 EMAS II Ekokudeaketa eta Ekoauditoretzako Araudira** aldi berean egokitzea erabaki zen eta, ondoren, 2010ean, Europako CE 1.221/2009 Araudira, horren bidez ahalbidetzen baita erakundeak beren borondatez Europako Erkidegoko Ingurumen-Kudeaketa eta Auditoretzako III. EMAS Sistemari atxikitzea.

Beraz, adierazpen honen abiapuntu gisa, publikoari, orokorrean, eta bestelako alderdi interesatuei ingurumen-jokabidearen arloko helburuak eta eboluzioa komunikatu nahi zaizkie, Osakidetza (CNAE 851 kodea) zerbitzu-erakunde publikoa den Bilbo Eskualdearen (BiE) komunikazioan eta kudeaketan gardentasuna bilatzen delarik.

Eranskinean BiE osatzen duten zentroetako bakoitzak daukan ingurumenarekiko jokabidea deskribatzen da.

Hauexek dira harremanetarako datuak, non BiEren ingurumenari buruzko adierazpena jendarean jartzen den:

Gran Vía k. 62, 2.a 48011 - Bilbao
Telefonoa: 94 400 73 00
Fax: 94 400 73 77
e-mail: andres.villarpizarro@osakidetza.net
Harremanetarako: Andrés Villar Pizarro

1.2 EMAS ERREGISTROA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN (IKS) IRISPENEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-Sailburuordetza 2009ko urtarrilaren 26an erregistratu zuen Bilbo Eskualdea (BiE) EMAS erregistroan, ES-EU-000046 zenbakiarekin, "Lehen Mailako Arretako zerbitzuak (Kudeaketa administratiboa eta Asistentzia Sanitaria) ematea" irispenerako, jarraian zehazten diren lekuetan garatzen dena:

LEHEN MAILAKO ARRETAKEO UNITATEAK (LMAUak)	ZENTROAK	M2	Helbidea	Erabiltzaileen hitzordu kopurua***	
				31.12..09	31.12.010
1.- BASURTU-ALTAMIRA	BASURTU OZ	1.500	Iparraldeko Lorategiak, 1 - 48013	151.039	145.903
	ALTAMIRA OZ	320	Altamira, 11 - 48013	38.257	36.849
2.-BEGOÑA	**BEGOÑA OZ	1.100	Virgen de Begoña, 32 – 48006	131.943	140.047
3.-BOLUETA-SAGARMINAGA	SAGARMINAGA OZ	410	Sagarminaga, 56 – 48004	128.496	104.243
4.-ALDE ZAHARRA	**Alde Zaharra OZ	950	Ronda, 6 – 48006	105.258	103.091
5.-DEUSTUA - ARANGOITI	*DEUSTUKO OZ	2.375	Luis Power, 18 – 48014	223.390	351.281
	C. S. ARANGOITI	400	Berribidea, 50 - 48014	45.388	42.720
6.- EL KARMELO	EL KARMELO OZ	450	Haroko plaza, 2 - 48004	144.207	122.759
7.-ETXANIZ SUHILTZAILEA	**ETXANIZ OZ	2.000	Etxaniz suhiltzailearen plaza, 1 - 48010	290.676	324.459
8.-GAZTELEKU	GAZTELEKU OZ	1.200	Vianako Printzearen kalea, 5 - 48007	201.239	196.629
9.-INDAUTXU	*INDAUTXU OZ	2.100	Areiltza dk. 12, -48011	164.197	362.738
10.-J. SAENZ DE BURUAGA	**J.S. BURUAGA OZ	2.050	Henao, 7-9 – 48009	101.160	101.665
11.-MESEDEETAKOA	MESEDEETAKO OZ	350	Luis Iruarizaga, 1 – 48003	90.012	88.982
12.-ABUSU	ABUSUKO OZ	600	Ibaialde z/g - 48003	109.463	107.267
13.- LARREAGABURU	LARREAGABURU OZ	700	Indalecio Prieto, 11, 48004	-	97.806
13.- OTXARKOAGA	**OTXARKOAGA OZ	1.200	Zizeruene, 1 – 48004	159.515	157.472
14.-ERREKALDE	*ERREKALDE OZ	2.100	Larraskitu errep., 2 - 48002	287.047	391.402
15.-SAN ADRIAN	SAN ADRIAN OZ	512	Juan de Garay, 51-53 – 48003	150.256	150.796
6.-SAN INAZIO	SAN INAZIO OZ	1.800	Larrako torre, 9,- 48015	254.605	244.544
17—SANTUTXU-SOLOKOETXE	*SANTUTXU OZ	1.400	Sorkunde, 3 – 48006	240.402	249.159
18.-TXURDINAGA	TXURDINAGA OZ	1.900	Txomin Garat, 16 – 48004	152.892	148.668
9.-ZORROTZA - ALONSOTEGI	ZORROTZA OZ	880	Zorrotza-Kastrexana errep. 20-22 atzealdea 48013	134.703	127.181
	ALONSOTEGI OZ	530	Camino de Erroteta, s/n – 48810	32.925	33.220
20. ZURBARAN	ZURBARAN OZ	550	Zumalakarregi etorb., 99 - 48007	112.165	109.863
GUZTIZKOAK	24	28.877		3.477.249	3.938.744
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	+1	1.500	Kale Nagusia, 62 - 48011	50	50

* Anbulatorioetan kokatutako osasun-zentroak.

** Arreta espezializatuko zerbitzua daukaten osasun zentroak.

***Erabiltzaileen hitzorduak + eskualdeko plantilla: adierazleak kalkulatzeko baliatutako datua

1.3 **ZUZENDARITZAREN AURKEZPENA**

Ingurumen-kudeaketa BiEren ekarpen aktiboa eta borondatezkoa da, **lehian duen egoera eta balio erantsia** hobetzeko.

Kudeaketari buruzko kontzeptu honek, beraz, enpresa kudeatzeko jardunbide-, estrategia-eta sistema-multzoa barne hartzen du, hain zuzen, **ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-dimentsioen artean oreka** berria lortu nahi duena.

Ingurumen-Kudeaketa gure xedearen funtsezko alderdia da, xede horren oinarrian erakunde publiko sanitarioa izatea dagoelarik:

"Bilbo eta Alonsotegiko biztanleriak dituen osasun beharrianak asebetetzea, zerbitzu sanitario publikoen bitartez, osasuna sustatuz, prebenituz, zainduz eta hobetuz. Gure jarduera, honako printzipio hauetan oinarritzen da: Unibertsaltasuna, Zuzentasuna, Elkartasuna, Eraginkortasuna, Kalitatea eta Iraunkortasuna"

Gainera, konpromiso hau gure **Ikuspegian** adierazi dugu, eta adierazpen horretan, gure geroko jardueraren oinarri izango diren parametro estrategikoak ezarri dira. Parametroak zehazterakoan, ondoko eragile hauen garrantzia hartu behar da kontuan: biztanleria zahartzea, baliabideak gehiago erabiltzea dakarrena; asistentzia-presioaren eta herritarren itxaropenen gehikuntza; Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailetik eta Osakidetzatik Kudeaketa-Tresna berriei (EFQM/PROZESUAK/ISO) emandako bultzada estrategikoa; informazio-teknologiaren irisgarritasuna (Ebidentzia oinarritutako medikuntza / Osabide / ACGs / Komunikazioa -liburutegi birtualak, bezeroarentzako informazio-euskarriak...-); beste erakunde eta instituzioekiko harremanak sistematizatzea, hala nola, Udalak / Auzo-Elkartek / Aldundia / Unibertsitatea / kaltetutakoen elkarteak, GKEak, etab., dena gure zerbitzuak garatu eta hobetzeki begira.

Ikuspegia

Osasun zerbitzurik onena ematen duen erakundea izateko helburua dugu, eta herritarrek, profesionalek, intereseko taldeek eta oro har gizarteak erakundetzat hartzea:

- **Eskuragarria, giza talde profesional eta eraginkorrek.** LMAU guztiak 8:00etatik 20:00etara irekitzen hasi ginen Osakidetzako LMAko lehen eskualdea izan ginen, eta horrek hobekuntza ekarri zion herritarrari. Gainera, "Zerbitzuen eskaintza hobetzea" prozesuarekin, osasun-zerbitzu berriak ezartzeko eta badaudenak berritzeko posibilitatea aztertzen dugu.

- **Arduratsua eta konprometitua iraunkortasunarekin.** Ildo horretan, Gizarte-Erantzukizun Korporatiboaren lehen memoria egin zen, 2006ri dagokiona. GRI gidaren (3. bertsioa) gomendioak jarraitu ziren memoria egiteko, eta A+ kalifikazioa lortu zuen AENOREn baliozkotze-proban, hori lortu duen Estatuko lehenengo erakunde publiko sanitarioa izan delarik.

- **Pertsonak beren jardueren garapenean eta hobekuntzan parte hartzera** bultzatzen dituenak. Horretarako, hainbat foro eta estrategia egin ditugu, hala nola, talde fokalak edo gure LMAUetako profesionalek osatutako hobekuntzako taldeak abiaraztea, hain zuzen herritarrei eman beharreko zerbitzuaren kalitatea hobetzen dutenak. Hala, Pertsonen Gogobetetasunaren Inkestako adierazleen emaitzak hobetu ditzakegu.

- **Etengabeko Hobekuntzarekin eta Berrikuntzarekin konprometitua.**

Gure kudeaketa-sistemaren garapena filosofia hñonen baitakoa da, eta horri esker, 2008an Urrezko Qa lortu zen, kudeaketaren bikaintasunari saria, Kalitatea sustatzeko Euskal Fundazioak (Euskalit) ematen duena.

- **Bilboko eta Alonsotegiko herritarren osasunarekin lotutako guztiarekin konprometitua.**

Garrantzia ematen diogu gure jarduerak herritarrengan duen eraginari. Hori dela-eta, prozesu espezifikoak zehaztu dugu, "Intereseko taldeen ahotsa" izenekoak, non herritarren interesak defendatzen dituzten erakundeekin ditugun harreman guztiak biltzen baititugu. Izan ere, gure jarduerak gizarte-erantzukizuneko jarduerak dira, osasunaren arlotik harago doazenak.



Adierazpen honetan, osasunaren osagarriak diren **ingurumen-alderdiak** aztertuko ditugu, betiere **gardentasun**-irizpideekin jokatzuz eta jarduerak etengabe **kontrolatzeko eta ebaluatzeko** mekanismoak ezarriz.

Era berean, azpimarratu beharra dago, gure 2008-2011 Plan Estrategiko berrian, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren aldeko apustua sustatu dugula **ingurumeneko** eta gizarte-eragineko eremuetan.

1.4. COMARCA BILBAO- BILBO ESKUALDEA: BiE


Bilbo Eskualdeak (BiEk) 1989an ekin zion ibilbideari, Osakidetzaren barruko "Bilbo Sektore" gisa eta lehengo INSALUDen egitura gainditu ondoren. Garai hartan, Bilboko Ospitalez Kanpoko Osasun Asistentziaren (Lehen Mailako Arreta, Arreta Espezializatua eta Buru Osasuna) ardura zuen: erakunde-egitura sei osasun eremutan banatzen zen eta guztira, Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko zazpi anbulatorio eta bederatzi Kontsultategi edo Osasun Zentro barne hartzen zituen.

1996.urtean Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatua banandu egin ziren, baina Arreta Espezializatua ez zen 1997. urtera arte erreferentzia-ospitalean, hots, Basurtuko Ospitalean, sartu. Momentu horretan Osakidetzan, Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren barruan, Lehen Mailako Arretako Erakundea bilakatu ginen.


1.4.1.- ERAKUNDEAREN EGITURA

Guztira, 25 lantoki ditugu, 24 osasun-zentroan banatuta dauden Lehen Mailako Arretako 20 unitatetan egituratuta. Atentzioa astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara, 24 osasun-zentroetan ematen da. Gainerako orduetan, Etengabeko Arretako Guneak arduratzen dira; kopurua beharren arabera egokitzen da. 9 zentro izaten dira larunbat goizetan, 5 larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan; eta, zentro bat gauetan 00:00etatik 08:00etara. Bestalde, Bilboko Kale Nagusiko 62an Eskualdeko Zuzendaritzaren egoitza dago.

Lehen Mailako Arreta – Osasuneko Zerbitzu Publikoa



Zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoa dugu Eskualde osorako. Laguntzako egitura gisa, zuzendaritzetan dauden profesionalen gain, honakoak daukagu: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea, Eskolako Osasun Zerbitzua, gizarte langile 2 eta Bezeroaren Arretarako 4 zerbitzu; azken horiek anbulatorioetan daude, non Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatua konpartitzen diren.



Zuzendari Gerentea da Erakundeko arduradun gorena, eta, ondorioz, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen eremuekin loturiko alderdi guztien liderra da, jardueren plangintza eta zehaztapena gainerako liderren esku uzten dituelarik.

1.5 EMATEN DUGUN ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA


Gure 20 LMaUen bidez Bilboko eta Alonsotegiko herritarrei ematen diegun zerbitzua Etengabeko Arretako zerbitzuarekin osatzen da, eta horrela biztanleek etengabeko zerbitzu sanitarioa dute eguneko 24 orduetan asteko 7 egunetan.

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun zerbitzuak Zerbitzu-zorroan jasotzen dira:

ZERBITZU SANITARIOEN ZORROA:
1. Oinarrizko prozedura diagnostikoak
2. Lehen Mailako Arretatik eskura daitezkeen prozedura diagnostikoak
3. Prozedura terapeutikoak
4. Prebentzioa, Osasunaren sustapena, Familia arreta eta arreta komunitarioa
5. Informazioa, Jagoletza epidemiologikoa
6. Berariazko arreta arrisku-talde espezifikoiei: haurrak, nerabeak, emakumeak, helduak, adinekoak, etxeko indarkeria eta tratu txarrak adin guztietan, arreta aringarria gaixo terminalei.
7. Arreta Osasun Mentalari.
8. Arreta aho-hortzen osasunari

Zerbitzu-zorro hau urtero berrikusi, berretsi, hobetu edo berritzen da.

Gure **Prozesu-mapan** identifikatutako prozesuen bidez hedatzen da jarduera, eta horien artean dago **Ingurumen-Kudeaketa**. Jabea da helburuak lortzeko beharrezko ekintza guztiak egiteko ardura daukana.



2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA:

2.1. INGURUMENERAKO POLITIKA


BiEko zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute erakunde osoan zehar ezar dadin, eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak ezartzeko erreferentzia dira.

BiEren ingurumen-politika printzipio hauetan zehazten da:

- **Politikaren esanahia komunikatzea, pertsonal guztiak ulertu eta eraginkortasunez bete dezan.**
- **Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat zehaztea eta abiaraztea, Ingurumenaren Kudeaketaren Eskuliburuan jasota dagoena.**
- **Giza baliabideak eta baliabide materialak ezarritako eskakizunak betetzera bideratzea eta bezeroak eta interesa daukaten alderdiak ingurumenaz jabearaztea eta beraien gogobetetasuna sustatzea.**
- Ez-adostasunak gutxitzeko nahikoa baliabide esleitzea.
- **Langile guztien informazioa eta partaidetza bermatzea gure jarduerak ingurumenean duen eraginaz jabetu daitezen, betiere kutsadura prebenitzeko eta baliabide naturalen aurrezpena sustatzeko guztiok daukagun konpromisoa ahaztu barik; bereziki baliabide natural urriei erreparatuko diegu.**
- Beharrezko aginpidea eskuordetzea prozesuen arduradunei, sistema arauaren arabera mantentzen dela ziurtatzeko, eta sistemaren funtzionamenduaren berri eman beharko zaio nahitaez zuzendari gerenteari etengabeko hobekuntza gisa.
- **Ingurumenerako politika interesa daukaten alderdien eskura jartzea.**
- Indarreko arauak eta legeria betetzen direla bermatzea, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.

Ingurumena kudeatzeko taldeak ezarritako politika dokumentatu, abiarazi eta egunean izango du, urtero aztertuz, gure jardueren garapenari egokitu ahal izateko.

BiEko profesional guztion erantzukizuna da ingurumenerako politika hau nahitaez betetzea.



Bilbon, 2007ko urriaren 22an
JESÚS LARRAÑAGA GARITANO
BILBO ESKUALDEKO ZUZENDARI GERENTEA

Zuzendaritzak balekotzat jo du 2007ko Ingurumenaren adierazpena.


Ingurumenari buruzko adierazpen honi buruzko informazioa bermatzeko, kartelak jarriko dira zentro guztietan, pertsonalaren, herritarren eta kontraten eskura. Eskualdeko intraneteko euskarri informatikoan ere jarriko da.

2.2.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPENA:

BiEk IKS ezarri du UNE_EN ISO 14001:2004 arauaren eta Europako 1221/2009 (EMAS III) Araudiaren betebeharrekoetan oinarrituta, ingurumen-politika betetzen dela bermatzeko:

- ingurumen-alderdi esanguratsuak identifikatzea, eta berauen kontrola eta jarraipena egiteko irizpideak ezartzea, sortu daitezkeen ingurumen-inpaktuak minimizatzen saiatuz.
- legezko eta arauzko betebeharrekoak identifikatzea, baita ingurumen-kudeaketan aplikagarria den beste edozein betebeharr edo konpromiso ere, eta berorien betetze-ebaluazioa.
- Pertsonala eta laguntzaileak prestatzea eta sentsibilizatzea, baita interesdun alderdi guztiekiko komunikazio irekia ere (herritarrak, administrazioko beste erakunde batzuk, elkarteak, hornitzaileak, etab.).
- erakundeko arduradun nagusien konpromisoa, ingurumenaren arloko legeria betetzeari eta jokabidea hobetzeari dagokienez, horretarako behar diren baliabideak (teknikoak, ekonomikoak eta giza-baliabideak) jarritz islatu behar dena.
- prozesuen eta esleitutako arduren dokumentatze kontrolatua.

Ingurumenaren Kudeaketarako gure Sistemaren eskema dokumentala grafiko honetan islatzen da:



Ingurumena Kudeatzeko Sistema **BiE**ren ingurumen-jokabidea hobetzeko ezarri da. Helburu orokor hori lortzeko, Ingurumenaren Kudeaketarako arduradunak edo eskuordetutako pertsonak aldiro aztertu eta ebaluatzen dute sistema, hobekuntza-aukerak identifikatu eta gauzatu ahal izateko.

Sistema etengabeko hobekuntzarako PDCA zikloan dago oinarrituta, ondoko eskeman ikus daitekeenez :




2.3.-ERANTZUKIZUNAK INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAN:

BiEn Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzeak ekarri du berariazko giza-baliabideak eta erantzukizunak esleitzea, funtzionamendua egokia izan dadin, IKSri dagokion organigrama honetan ikusten den moduan:

3. BiE – BiLBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

Ingurumenari buruzko adierazpen honen xedea honakoa da: interesa daukaten parte guztiei, Bilbo Eskualdeak ingurumenarekin daukan harremanaren berri ematea.



Ingurumenarekiko gure jokabidea era honetan egituratzen da:

- INGURUMENARI lotutako ALDERDIEN identifikazioa: Ingurumenarekiko elkarrekin izan dezaketen BiEko jardueraren edo zerBitzuen elementuak. Ingurumen-alderdi esanguratsutzat joz, ingurumen eragin esanguratsua daukana edo izan dezakeena.
- Ingurumenarekiko jokabidearen analisi ebolutiboa egitea ahalbidetuko duen **informazio kuantitatiboa**.

3.1 **INGURUMEN ALDERDIAK**

BiE – Bilbo Eskualdea bere jarduera eta zerbitzuetatik eratorritako ingurumen-eraginak identifikatzeko beharrianaz jabetu da, bere egungo egoera ezeze, iraganeak eta etorkizuneko ere aintzat hartuz. Horregatik “IKS-EP-12 Ingurumen-Alderdien identifikazioa” prozeduraren arabera alderdien identifikazioa egin du, garapena kontrolatzeko eta bere ingurumenerako politikaren egokitzapena egiaztatzeko.

Ingurumen-alderdiak honelakoak izan daitezke:

- o **Zuzenekoak.**- Jardueraren garapenaren ondorioz eratorritzen direnak dira eta horien kudeaketaren gaineko kontrola dago. Honelaxe identifikatu daitezke:
 - o **Ohiko egoeran.**- **BiE**ko ohiko jarduera.
 - o **Ezohiko egoera.**- Jarduera edo zeregin puntualak.
 - o **Larrialdiak.**- kasu bakoitzean eman daitezkeen egoera posibleak eta alderdi potentzialak aurreikusi beharko liratekeela.
- o **Zeharkakoak.**- Jardueraren garapenaren ondorioz eratorritzen direnak dira, baina **BiE** ez dauka horien gaineko kontrolik.

3.2 **INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA**

IKSaren ardura daukan pertsonak zuzeneko eta zeharkako ingurumen-alderdiak identifikatu eta aztertzen ditu, kontuan harturik funtzionamendu egoera ohikoak eta ezohikoak, istripu potentzialak eta emergentzia-egoerak. Identifikazio hori LMAUetan garatzen diren jardueren eta zerbitzuen analisian oinarritzen da. Zentzu horretan, **BiE**ren zerbitzu-zorroa eta prozesuak hartzen dira aintzat.

Hauexek dira erakundean identifikatutako ingurumen-alderdiak:

Zuzeneko alderdiak egoera normaletan:

ALDERDI-MOTA		INGURUMEN-ALDERDIA
Kontsumoak	A. administratiboa	Papera
		Tonerra, inprimagailuak, fotokopiagailuak, drum
		Pilak eta bateriak
		Inprimagailuko kartutxoak
	A. sanitarioak	Medikamentuak
		Aposituak
		Tirak
		Orratzak, xiringak eta hodiak
		Bendak eta gazak
		Beste material sanitario batzuk
		Bestelako materiala
	S. arriskutsuak	Substantzia arriskutsuak (Instrunet)
	Sareko ura	Sareko ura
	Energia	Argindarra
		Galdarako gasa
		Galdaretako gasolioa
		Automoziozko gasolioa

ALDERDI-MOTA		INGURUMEN-ALDERDIA
Hondakinak	Arriskutsuak	RAEEak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.)
		Pilak eta bateriak
		Ebakitzaileak eta zorrotzak
		Lanpara fluorezszenteak
		Zitostatikoak
		Iraungitako medikamentuak
	Ez arriskutsuak	Garbiketako ontzi arriskutsuak
		Erradiografiak
		Tinta eta toner kartutxoak
		Papera eta kartoia
Isurketak		Ur sanitarioak
Zarata		Bulegoetako zarata
Igorpenak		Argindarraren igorpenak
		Galdarako igorpenak
		Automozioiko igorpenak

Zuzeneko alderdiak ezohiko egoeretan:

- o Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak
- o Bolumen handiko hondakinak (altzariak...)

Zuzeneko alderdiak larrialdietan:

INGURUMEN-ALDERDIA	LARRIALDIAK
Igorpenak atmosferara	Leherketa
Hondakin arriskutsuak	Leherketa
Hondakin inerteak	Leherketa
Hondakin inerteak	Sutea
Hondakin arriskutsuak	Sutea
Sua itzaltzetik eratorritako isurketak	Sutea
Igorpenak atmosferara	Sutea
Hondakin ez arriskutsuak	Uholdea
Uholdetik eratorritako isurketak	Uholdea
Legionela kutsadura	Legionelosia
Igorpenak atmosferara	Gas hozgarriaren ihesa
Hondakin arriskutsuak	Substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea
Isurketak	Substantziak, hondakin arriskutsuak edo erregaiak isurtzea

Zeharkako alderdiak:

- o Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea (mantentzea, garbiketa...)
- o Hornitzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea – kanpoko analisisien laborategia
- o Lehen Mailako Arretakoa ez den pertsonalak ingurumenarekiko daukan jokabidea.
- o Erabiltzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea

3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

LMAUetako kudeaketako ingurumen-alderdiak behin identifikatuta, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu (**zuzenekoak zein zeharkakoak**) Ingurumen-Alderdien Ebaluazio-Taulen arabera, IKS-KP-12 prozedurari erantsitako agiria, ingurumenaren gain, horietatik zeinek daukan eragin esanguratsua zehaztu eta berorren kontrola hobetzeko.

Ohiko eta ezohiko **zuzeneko alderdien nahiz zeharkako** ebaluazioa, eginiko jardueretan bildutako informazioan dago oinarrituta, eta bi irizpide hartzen ditu kontuan:

- a) **Alderdiaren magnitudea (alderdia zenbatzea:** Kopurua, instalazioen funtzionamendu orduak, etab.).
- b) **Alderdiaren izaera (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).**

Ebaluazio-irizpideetarako, a) (Magnitudea) eta b) (Izaera), balorazio-eskala bat ezarri da (gutxienez 1, eta gehienez 3).

Ingurumen-alderdi baten Magnitude eta Izaeran izandako puntuazioetatik abiatuta, biderketa egiten da bere esangura ateratzeko:

$$E = M \times I$$

(**M** Magnitudea da eta **I** Izaera)

Ebaluazioaren balioa, aurreko atalean zehaztutako eragiketaren arabera eginga, gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia ESANGURATSUtzat hartuko da eta lehenetsi egingo da, ahal den guztietan, hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

Larrialdietako ingurumen-alderdien kasuan Faktore Orokorraren Balioa lortzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Larrialdia gertatzeko **probabilitatea** (larrialdia zenbat aldiz gertatu den abiapuntu hartuta).
- o Larrialdi bakoitzaren balizko eraginaren **larritasuna**.

Magnitude eta Izaeran bezala, balorazio-eskala ezarri da (1, gutxienez, eta 3, gehienez), eta esangura biak biderkatuz ateratzen da:

$$E = P \times L$$

(**P** Probabilitatea da, eta **L** Larritasuna)

Ebaluazioaren balioa, gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia ESANGURATSUtzat hartuko da eta lehenetsi egingo da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

Esangura-maila	
E=1	Baxua
1 < E ≤ 3	Tartekoa
E≥4	Altua

Aurreko atalean zehaztutako irizpideen argitan, alderdi esanguratsuen kopurua handia balitz, ingurumenaren eragina gutxitzeko ekintzak bideratu orduan, IKS-KP-12 prozedurako I. eranskinean, EBALUAZIO-TAULAn, deskribatutako irizpide gehigarriak hartuko lirateke aintzat. **B** Cren aurretik lehenetsiz eta **A** Bren aurretik.

Irizpide gehigarriak:

Erabaki-irizpideak	A	B	C
Interesdun alderdiak	Justifikatutako erreklamazioak edo kritikak	Justifikatu gabeko erreklamazioak iradokizunak edo	Kritika susmoa
Egite-irizpideak	A	B	C
Iritzi teknologikoak	Teknologia egokia egon badago	Dagoen teknologia ez dago eskuragarri	Ez dago teknologia egokirik aldaketarako
Aukera ekonomikoak	Inbertsio baxua eta itzulkin ona	Erdi-mailako inbertsioa edo itzulkin egokia	Goi-mailako inbertsioa edo itzulkin baxua

Aurretiaz deskribatutako irizpideak aplikatu izanaren azken emaitzak **BiE** – Bilbo Eskualdeari zera ahalbidetzen dio: batetik, bere jarduerak ingurumenari (ingurumen-alderdien identifikazioa) nola eragiten dion eta, bestetik, zein mailatan (ingurumen-alderdi esanguratsuak eta ez-esanguratsuak) eragiten dionezagutzea, informazio hori baliatuz, ingurumen-programak ezartzeko (ingurumenaren gaineko helburuak eta xedeak).

3.4. INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

Arestian deskribatutako prozeduraren arabera 2009ko Ingurumen-Alderdien Ebaluazioa eginda, eskualde mailan hurrengo hauek hartu dira **esanguratsutzat**:

- Pilen eta baterian kontsumoa
- Argindarraren kontsumoa
- Berogailuetako gasolioaren kontsumoa.
- Automozio-gasolioaren kontsumoa.
- RAEEko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).
- Hondakin ebakitzailak eta zorrotzak.
- Lanpara- eta fluoreszente-hondakinak.
- Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko igorpenak.

Zentro batzuetan esanguratsuak direnak: (Ikusi zentroetako datu-eranskina)

- Galdarako gas-kontsumoa.
- Bereizi gabeko hiri hondakinak
- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak
- Erabiltzaile eta hornitzaileen jokabidea.

Hurrengo taulan, lehenago azaldutako metodologiaren arabera identifikatutako alderdiak erakusten dira, zentroa:

Ingurumen-Alderdia	Ionsoategi	Itamir	Arangoi	Basurto	Begoña	Xaniz surte	De Zahar	Deustoa	Zendaria	Sazteleku	Indautxu	Buruaga	Karmelo	Eseetako	Abusu	Txarkoak	Errekalde	Garmintan	San Adria	San Inazio	Santutxu	Kurdinaga	Zorrotxa	Zurbaran	T. Eskualdea
Folioak	3	1	3	3	2	1	3	1	3	3	1	3	3	2	3	1	1	2	1	3	1	3	1	3	1
fotokopiagailuak / drum	3	1	1	2	1	1	3	3	1	3	3	1	1	2	1	3	3	3	3	3	3	3	1	3	1
Pilak eta bateriak	2	6	2	6	2	6	6	6	4	6	2	6	2	6	6	2	2	2	6	6	6	6	6	2	4
Inprimagailu-kartutxoak	1	3	1	3	3	3	3	3	0	1	1	1	1	1	1	1	3	1	1	1	3	1	3	1	3
MEDIKAMENTUAK	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
APOSITUAK	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
TIRAK	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
ETA HODIAK	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BENDAK ETA GAZAK	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BESTE MAT. SANITARIOA	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BEST. MAT. (instrumt.)	1	1	3	3	1	3	1	2	0	2	3	3	3	1	3	1	3	1	3	3	3	1	1	3	3
Sareko ura	1	1	3	2	1	1	2	1	1	3	1	1	1	2	2	1	1	3	2	1	2	2	3	1	1
Argindarra	6	6	4	6	6	4	2	2	2	6	6	4	6	1	2	6	6	6	1	6	1	1	1	2	6
Galdarako gasa	0	9	9	3	3	0	3	3	0	3	3	0	9	9	9	9	3	9	9	9	3	9	9	6	3
Galdarako gasolioa	0	0	0	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	6	0	0	0	0	0	0	0	0	3
Ibilgailuetarako erregeia	0	0	0	0	0	0	0	0	6	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	6
ordenagailuak, etab,...)	6	6	6	6	6	6	6	6	9	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
Pilak eta bateriak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Erradiografiak	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	2	2	1	1	1	1	1	1	1	1	3
Ebakitzailak eta zorrotzak	9	3	9	9	3	9	9	3	0	9	9	9	6	3	6	9	3	9	6	6	3	9	9	9	6
Lanpara fluoreszenteak	9	9	9	9	3	6	6	9	9	9	6	6	9	9	9	9	9	3	9	9	9	9	6	6	9
Zitostatikoak	2	2	2	1	2	1	1	1	0	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	2	1	1
Iraungitako medikamentuak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Garbiketako ontzi arriskutsuak	3	0	0	3	3	3	3	3	0	3	3	3	0	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Tinta- eta toner-kartutxoak	2	3	1	1	2	1	1	3	3	3	3	3	1	3	1	2	3	3	1	3	1	3	3	3	3
Papera eta kartoia	3	3	1	3	3	3	3	3	3	3	3	3	1	2	3	3	1	1	2	1	3	1	3	3	2
Hondakin higienikoak (komunak)	2	2	2	2	2	3	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Hiri-hondakin ez-bereiziak	2	4	6	2	6	2	6	6	2	6	6	2	2	2	2	2	2	4	6	2	2	2	4	2	2
(altzariak)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0	2	0	0	0	2	0	0	0	2
hondakinak	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0	2	0	0	0	0	0	2	0	6	0	2	0	0	2	2
Ur sanitarioak	1	1	3	2	1	1	2	1	2	3	1	1	1	1	1	1	1	3	1	1	2	2	3	1	2
Kanpora igorritako zarata	2	2	2	1	2	2	2	2	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	1
Argindar-igorpenak	6	6	4	6	6	4	2	2	2	6	6	4	6	4	2	6	6	6	6	6	4	6	6	2	6
Galdarako igorpenak	0	3	3	1	1	1	1	1	2	1	1	0	0	3	3	3	1	3	3	2	1	3	3	0	2
Suteek eragindako hondakin geldoak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Suteek eragindako hondakin arriskutsuak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Suteek eragindako igorpenak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Suteak itzaltzean eragindako isuriak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Uholdeek eragindako hondakin geldoak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	2
Legionellosi-agerraldiak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	1
Leherketek eragindako hondakin geldoak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Leherketek eragindako hondakin arriskutsuak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1

Ondoko taulan, 2010ean eskualde-mailan identifikatutako ingurumen-alderdi esanguratsuak azaltzen dira, 2009ko datuetatik abiatuta, baita horiekin lotutako eraginak ere.

INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUA	INGURUMEN-ERAGINA	HORRI LOTUTAKO HELBURUA
Pilen eta baterien kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Produktu horiek fabrikatzeko prozesuetako hondakinak, igorpenak eta hondakin-uren isurketak eragiten guk daukagun erantzukizuna.	Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Zorrotza, Altamira, Etxaniz, Alde Zaharra, Administrazioa, Gazteleku, Buruaga, Mesedeetakoa, Abusu, San Inazio, Txurdinaga, Deustua.
Argindarraren kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Igorpenak atmosferara.	Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Alonsotegi, Altamira, Arangoiti, Basurtu, Begoña, Gazteleku, Indautxu, Karmelo, Mesedeetakoa, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, Santutxu, Txurdinaga, Zurbaran. Argindarraren kontsumoa %0,1 murriztea. Zentroa: Errekaldeberri
Berogailuetako gasolioaren kontsumoa		*
Automozio-gasolioaren kontsumoa.		*
RAEEko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).	Paisaiaren kalitatea gutxitzea hondakinen pilaketaren ondorioz, energia-kontsumoa berorren kudeaketan. Medioan substantzia arriskutsu aktiboak sartzea	Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Administrazioa, Begoña, Deustua, San Inazio, Santutxu.
Hondakin zorrotzak / puntadunak (biosanitarioak)		Hondakin biosanitarioak %2 murriztea Zentroak: Alonsotegi, Arangoiti, Basurtu, Etxaniz, Alde Zaharra, Indautxu, Buruaga, Karmelo, Abusu, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, Zorrotza, Zurbaran
Lanpara-fluoreszente-hondakinak.		*
Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko igorpenak.		*

*Beren izaerak edota erakundearen baliabide murrizteak eraginda Ekintza Planari lotuta ez dauden ingurumen-alderdi esanguratsuen kasuan, Operazio-Kontrolaren bitartez eragiten zaie eta **BiE**ko ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten zaie.

4. XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO PROGRAMAK (EKINTZA PLANAK)

BiEn 24 zentro daude, Bilbo (23) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta, eta horiei Eskualdeko Zuzendaritza gaineratu behar zaie. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, hasieran eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatu dira gehienbat; dena den, ingurumen-alderdien identifikazioa eta alderdion ebaluazioa zentroz zentro egin dira. Jakin badakigu ingurumen kudeaketa epe erdi/luzerako proiektua dena.

Hobekuntzarako helburuak jartzerakoan, une honetan Eskualde mailan garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-alderdi batzuk aintzat hartu dira, gerora hala izan daitezkeelakoan edota dagoeneko esanguratsuak direlako **BiE** osatzen duten zentroetakoren batean eta, gainera, iraunkortasunean aurrera egiteko interesgarri jotzen direlako. (Ikusi Larreagaburuko eta Errekaldeko zentroei dagozkien 6., 7., 8. eta 9. helburuak).

2010ean, prozesua etengabe hobetzeko eta urte hasieran planteatutako helburuak erdiesteko aurreikusitako ekintzak abiarazi dira eta ekintza-planen emaitzak eta itxiera aztertu dira.

Jarraian, 2010erako planteaturiko ingurumenaren hobekuntzarako helburu, xede eta ekintzak betetzeari buruzko ebaluazioaren emaitzak erakusten dira.

* Adierazleerako bezeroen hitzordu kopurua + 4. orrialdeko taularen arabera eskualdeko administraziooko plantilla

1. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Hondakin biosanitarioak %2 murriztea Zentroak: Alonsotegi, Arangoiti, Basurtu, Etxaniz, Alde Zaharra, Indautxu, Buruaga, Karmelo, Abusu, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, Zorrotza, Zurbaran	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,00344	0,00302	Jokabide-ikuskapenak hondakin espezifiko biosanitarioak bereizteari buruz, horiek gehien sortzen diren eremuetan (sendaketa-gelak).	BAI	BAI
				Prestakuntza-hitzaldiak gehien sortzen diren eremuetan, pertsonalari horiek bereizteko modu egokia gogorarazteko.	EZ*	
				Posterra jartzea, sortzen diren eremuetan hondakin sanitarioak bereizteko moduari dagokionez (sendaketa-gelak eta odola ateratzekoak).	BAI	
				Edukiontzia kontsultetatik sendaketa-geletara eta odola ateratzekoetara txandakatzea.	EZ*	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,00337. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00302; horrek %12, 26ko murrizketa dakar berekin.

Zentroko helburua: Lortuta Alonsotegi, Basurtu, Alde Zaharra, Indautxu, Buruaga, Karmelo, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, Zorrotza eta Zurbaran zentroetan.

Xede /ekintzen betetze-maila: planifikatutako ekintzak burutu egin dira Eskualdeko zentroetan, hondakinak bereizteko modu egokiari buruzko prestakuntza-hitzaldiak salbu, hondakinak kudeatzeko ikastaroa 2011ra atzeratu da eta.

Bai hitzaldiak bai edukiontzi-errotazioa zentro batzuetan baino ez da egin, Otxarkoagan, adibidez.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bidez, gai arriskutsu aktibo gutxiago sartu dira ingurunean.

2. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Erabiltzaileekin zerikusia daukaten gertaera-kopurua %5 murriztea Zentroak: guztiak	Gertaera-kopurua (erabiltzaileek eragindakoak)	46	45	Ingurumen-jardunbide egokiei buruzko informazio-dokumentua egitea.	BAI	EZ
				Ingurumen-jardunbide egokiak erabiltzaileen artean zabaltzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 42,75. Lortutako adierazlearen balioa: 45; horrek %2,2ko murrizketa dakar berekin.

Erregistratutako gertaerek edonoren eskura dauden edukiontzietan hondakinak behar ez bezala bereizteari lotutakoak dira. Interesa daukaten alderdiei informazioa emateko eta kontzientzian eragiteko lanean jarraitu behar dela deritzogu.

Zentroko helburua: Lortuta zentro hauetan: Buruaga, San Adrian, Arangoiti, Abusu, San Inazio, Basurtu, Otxarkoaga, Zorrotza, Begoña, Sagarminaga, Alde Zaharra, Deustua, Administrazioa edo Zuzendaritza.

Xede /ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Ez da helburua lortu, baina, iazkoaren aldean, gutxiago izan dira erregistratutako gorabeherak; balantzea, beraz, positibotzat jo dezakegu.

3. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA	
	Definizioa	2009	2010		Lortua	
					Xedea	Helburua
Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Zorrotza, Altamira, Etxaniz, Alde Zaharra, Administrazioa, Gazteleku, Buruaga, Mesedeetakoa, Abusu, San Inazio, Txurdinaga, Deustua.	pila kg/ hitzorduak (erabiltzaileak)	0,000124	0,00007	Langileei jakinaraztea zentroetan berriz kargatzeko pilak erabiliko direla.	BAI	BAI
				Berriz kargatzeko pila eta bateriaz hornitzea.	BAI	
				Pilak eta bateriak berriz kargatzekoekin ordeztzea.	BAI	
				Ahal den neurrian, kargagailu eta sare-egokigailuz hornitzea.	BAI	
				Korrontez elika daitezkeen (sare-egokigailuak) ekipo eta tresnei buruzko azterketa egitea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestera espero zen adierazlearen balioa: 0,0001227 pila kg / erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00007 pila kg / erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %43,78ko murrizketa dakar.

Zentroakako helburua: Lortua Zorrotza, Altamira, Etxaniz, Alde Zaharra, Gazteleku, Buruaga, Mesedeetakoa, Abusu, San Inazio eta Txurdinaga zentroetan.

Xede /ekintzen betetze-maila: Bete egin dira proposatutako Xede/Ekintzak.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburuaren bitartez, baliabide naturalen kontsumoa murriztea lortu da. Eta produktu hauek ekoizteko prozesuetako hondakin, igorpen eta hondar-uren isuriak murrizten lagundu da.

4. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Alonsotegi, Altamira, Arangoiti, Basurtu, Begoña, Gazteleku, Indautxu, Karmelo, Mesedeetakoa, Otxarkoaga, Sagarminaga, San Adrian, Santutxu, Txurdinaga, Zurbaran.	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,91990	0,73379	Bideragarritasun-azterketa, komun eta aldageletan detektagailuak eta tenporizadoreak instalatzeko. Zentroak: Begoña, Otxarkoaga eta Errekalde.	EZ	BAI
				Energia-eraginkortasunari buruzko azterketa.	BAI	
				Prestakuntza- eta kontzientziazio-jardunaldia energia-eraginkortasuna lantzeko (BiEko Prestakuntza-Jardunaldiak).	BAI	
				Jardunbide egokien gaineko informazio-dokumentua egitea, pertsonal osoari emateko.	BAI	
				Ingurumen-jardunbide egokiak langileen artean zabaltzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestera espero zen adierazlearen balioa: 0,91806 kwh/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,73379 kwh/erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %20,23ko murrizketa dakar.

Zentroakoko helburua: Alonsotegi, Arangoiti, Basurtu, Begoña, Gazteleku, Indautxu, Karmelo, Otxarkoaga, Sagarminaga, Txurdinaga eta Zurbaranen lortu da.

Xede /ekintzen betetze-maila: Energia-eraginkortasunari buruzko azterketa abiatu da Eskualdeko 3 zentrotan: Altamira, Otxarkoaga eta Deustua. Eskualdeko Prestakuntzako 6. Jardunaldietan, energia-eraginkortasunaren inguruko tailerra antolatu zen. Gainera, jardunbide egokietarako dokumentu bat egin da eta pertsonal osoari eman zaio, eta, jendearen eskura jarri da zentroetan. Sakagailu tenporizadoreak jarri dira Zorrotza eta Zurbarango komunetan, aurrekontua dela-eta, ez da beste detektagailu edo tenporizadorerik jarri.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako igorpenak murriztea lortu da.

5. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Administrazioa, Begoña, Deustua, San Inazio, Santutxu.	Hondakin kg/ hitzorduak (erabiltzaileak)	0,02537	0,02118	Biltegietan, sendaketa-geletan... plastikoak bereizteko edukiontziak jartzea	BAI	BAI
				RAEEtarako (aparatu elektronikoak) edukiontziak jartzea	BAI	
				Langileei informazioa ematea zentroetan bereizten diren hondakinez.	EZ	
				Langile berriei hondakinak kudeatzeko prestakuntza ematea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,025116 hondakin kg/ erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,020271 hondakin kg/ erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %16,51ko murrizketa dakar.

Zentroakoko helburua: Deustua, Santutxu eta Administrazio edo Zuzendaritzan lortu da.

Xede /ekintzen betetze-maila: Zentroetan plastikoak eta RAEEak bereizteko edukiontziak jarri dira, baina, zentro batzuetan, edukiontzi horiek jarri izanari buruz langileei emandako informazioa ez da egokia izan.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Murriztu egin dira hondakin ez-arriskutsuak. Helburu horren bitartez, murriztu egin da kontsumoa eta lurzorua eta atmosferaren gaineko eragina, tratamendu eta pilaketa ekintzei esker.

6. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Argindarraren kontsumoa %0,1 murriztea. Zentroa: Errekalde	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,7354	0,5343	Zentroko kontsulta eta gela bakoitzeko atean kartela jartzea, irtetean argia itzali behar dela gogorarazteko.	BAI	BAI
				Informatika-ekipo bakoitzean pegatina jartzea, elementu guztiak erabat itzali behar direla gogorarazteko.	BAI	
				Argi naturala nahikoa denean, halleko argiak guztiz edo partzialki itzaltzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,7346 kwh/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,5343 kwh/ hitzorduak (erabiltzaileak); horrek kontsumoaren %27,35eko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzak %100ean bete dira helburua jarritako zentroan.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako igorpenak murriztea lortu da.

7. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Paper-kontsumoa %0,5 murriztea Zentroa: Errekalde	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0079	0,0068	Lehen Mailako Arretan, zita-dietarioak egunero inprimatzeari uztea. Kasuan kasuan eskatutakoak inprimatzea.	BAI	BAI
				BAEn bi edo hiru egunera begira inprimatzen diren espezializatuko dietario-kopurua murriztea.	BAI	
				Kontzientziazio-mezuen bidez, folioen eta gutun-azalen kontsumo arduratsua bultzatzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,00786 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak). Lortutako adierazlearen balioa: 0,0068 kg/ hitzorduak (erabiltzaileak); horrek kontsumoaren %13,84ko murrizketa dakar.

Xede /ekintzen betetze-maila: Zentroan planifikatutako ekintzen %100 bete da.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bidez, baliabide naturalak babesten dira, eta murriztu egiten dira papera ekoizteko prozesuetako hondakinak, igorpenak eta hondar-uren isuriak.

8. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Etxeko hondakin zorrotzak ontzi desegokietan ematen dizkiguten erabiltzaileen gertaerak murriztea. Zentroa: Errekalde	Gertaera kopurua	1	3	Prozedura estandarizatua definitzea, etxean ziztatzen diren pazienteei edukiontziak emateko, baita jasotzeko ere.	BAI	EZ
				Prozedura kontsultetako eskuliburu guztietan sartzea.	EZ	
				Zentroko profesional guztiei posta elektronikoz eta Osabide bitartez jakinaraztea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: < 1. Lortutako adierazlearen balioa: 3; horrek igoera adierazten du gertaera-mota horietan.

Xede /ekintzen betetze-maila: Tratamendua etxean egiten duten pazientei edukiontziak emateko prozedura estandarizatu egin da, baita langileei jakinarazi ere; hala ere, ez da sartu kontsulta guztietako eskuliburuetan.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Helburu honen bidez, erabiltzaileen jokabidea hobetzen saiatu gara, beraien etxeko tratamendua dela-eta sortutako hondakin sanitarioak kudeatzeari dagokionez. Ez da posible izan.

9. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA			XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	2009	2010		Xedea	Helburua
Pertsonalaren ingurumen-jokabidea hobetzea. Puntu horri lotutako ingurumen-gertaera kopurua 2 baino baxuagoa Zentroa: Larreagaburu	Gertaera-kopurua (pertsonalak eragindakoak)	-	0	Ingurumen-jardunbide egokiei buruzko dokumentua egiten parte hartzea.	BAI	BAI
				Ingurumen-jardunbide egokiak langileen artean zabaltzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: <2 ingurumen-gertaera. Ez da gertaerarik erregistratu.

Xede / ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eraginaren murrizketari ekarpena: Hobetu egin da ingurumen-jokabidea, osasun-zentroko pertsonala sentsibilizatuz.

5. INGURUMEN-JOKABIDEA

Aurreko adierazpenen aldean, egokitzen jo da, ahal den guztietan, Bilbo Eskualdeko balio globalak aurkeztea, horrek informazio zabalagoa ematen dielako alderdi interesatuei. Zentrokako datuak dokumentuaren azkenean daude erantsita.

5.1 OINARRIZKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENENK BESTE ADIERAZLE BATZUK

LMAUetan ingurumenaren aldetik daukaten jokabidearen jarraipena egiteko, **BiE**ren ingurumen-alderdi nagusiekin lotutako zenbait jarraipen-adierazle ezarri dira. Jarraipen-adierazleok erakundearen tamainari, motari, beharrei, lehentasunei... egokitutako informazioa lortzea ahalbidetzen dute. Era berean,

- erakundearen ingurumen-jokabidearen balorazio ahalik eta zehatzena eskaintzen dute;
- ulergarriak eta argiak dira,
- erakundearen ingurumen-jokabidearen garapena urtez urte ebaluatzeko konparazioa ahalbidetzen dute;
- araubidezko baldintzekiko konparazio egokia ahalbidetzen dute.

